

opusdei.org

Kristau herria Abendu Aldian itxaropenez eta gogozko itxarotez betetzen da

Abendualdiko bukaeran Aita
Santuak kristauoi hasieran esan
zizkigun mezua gogoratzen
dugu

2005 Abe 20

Senide maitekok!

Igande honekin ematen diogu
hasiera Abendu Aldiari. Erlijiozko

ikuspuntutik begiratuta oso aldi
adierazkorra dugu, itxaropenez eta
gogozko itxarotez betea baitago.
Urtero, kristau elkarte
Berreroslearen jaiotza gogoan
hartzeko prestatzen denean, bere
baitan pozezko hozkirri bat
nabaritzen du, neurri batean gizarte
osoari ere sakabanatzen dena.
Kristau herria Abendu Aldian
espirituaren mugimendu bikoitza
biziberritzen du: alde batetik, jaso
egiten ditu begiak historian bizi duen
erromesaldiaren azken mugarantz,
Jesus Jaunaren aintzazko itzulirantz,
alegia; beste aldetik, haren Belengo
jaiotza zirraraz gogoraturik, makurtu
egiten da Jaiotzarantz. Kristauen
itxaropenak etorkizunerantz jotzen
du, baina beti gelditzen da ondo
erroturik iraganako gertakizun
batean. Garaiak bere betera iritsi
zirenean, Jaungoikoaren Semea
Maria Birjinagandik jaio zen,
“emakumeagandik jaioa, legepean

jaioa”, Paulo apostoluak dioenez (Gal 4,4).

Ebanjelioak gaur erne egon gaitezen eskatzen digu, Kristoren azken etorreraren zain. “Egon erne!” dio Jesusek, “ez baitakizue noiz datorren etxeko jabea” (Mk, 13,35.37). Alde egin zuen jabea eta hura ordezkatu behar zuten zerbitzarien parabola laburrak erakutsi hau ematen digu: prest egon behar dugula Jauna ongi hartzeko ezustean agertzen denean. Kristau elkarteak antsiaz itxaroten du haren “agerraldia”. Paulo apostoluak korintoarrei idazten dienean, hauxe eskatzen die: Jaungoikoaren leialtasunean uste on izatea; eta inork haien aurka zeresanik izan ez dezan moduan bizitzea, itzultzen denean, Jaunaren egunean (Cf 1 Kor 1, 7-9). Horregatik, egoki asko, Abendu Aldiaren hasieran liturgiak Salmoaren deiadarra ipintzen digu ezpainenetan:

“Erakutsi guri, Jauna, zeure maitasuna, eman zeure salbamena!”

Kristauek garai honetan piztu egin behar dute beren bihotzetan mundua, Jaungoikoaren laguntzaz, berriitu ahal izateko itxaropena, horixe baitagokio Abendu Aldiari. Vatikanoko II.eko Gaudium et Spes, ‘Eliza gaurko munduan’ gaitzat duen idazkia, gogoratu nahi nuke gaur: kristau itxaropenez blai dagoen testua da. 39. zenbakiaz ari naiz, izenburu hau duenaz, hain zuzen: “Lur berria eta zeru berria”. Hauxe irakur daiteke bertan: “Jaungoikoak bizileku berri bat eta lur berri bat non justizia nagusia baiten prestatzen digula erakusten digu” (Cf. 2 Kor 5,2; 2 Pet 3,13)... Hala ere, lur berri bat itxarroteak ez du oraingo lur hau hobetzeko kezka moteldu behar, eztitu baizik. Izan ere, gure ahaleginaren fruitu onak aurkitu egingo ditugu Kristok bere Aitari bere erreinu azkengabekoa eta

unibertsala emango dionean.

Abendu Aldiaren Erregina den Maria txit Santuak lor diezagula grazia-aldi hau erne eta Jauna itxaroten bizitzen.

Angelusaren ondoren, Aita Santuak agurtu egin zituen erromesak, zenbait hizkuntzatan. Gaztelaniaz, honela hitz egin zuen:

Abendu Aldia hastean, agurtzen ditut bihotzez gaztelaniazko erromesak, hemen daudenak eta irrati-telebisten bitartez Angelusaren errezoa jarraitzen dutenak. Liturgi aldi honek berpiz dezala zuen bihotzetan munduaren argia den Kristoren bila ateratzeko gogoia eta bizirik iraunaraz dezala zuen sinesmenaren garra. Mariak, itxaropenaren Amak, zuzen ditzala beti zuen urratsak. Igande zoriontsu izan!

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/kristau-herria-abendu-
aldian-itxaropenez-eta-gogozko-
itxarotez-betetzen-da/](https://opusdei.org/eu-es/article/kristau-herria-abendualdian-itxaropenez-eta-gogozko-itxarotez-betetzen-da/) (2025 Api 20)